



Soviet Batasuneko Briansk eskualdetik laurogei haur etorri dira. JOSE SIMAL

Ongietorria eman zien Udalak Bilbon dauden ume sobietarrei

I.E. / BILBO

Soviet Batasuneko, Briansk eskualdetik Euskal Herrira etorritako laurogei haurrei, atzo eman zien ongi-torria Bilboko Udalak, goizeko hamaiketan udaletxean egindako ekitaldiaren bidez. Harrera egin zen aretora sartzean, Bilbori buruzko liburu bana oparitu zitzaizkien gaztetxo sobietarrei, gogoz hartu zituzten gozkiekin batera.

Brians eskualdeko gaztetxo hauek izan ziren, duela bost urte Txernobyl-eko istripu nuklearrean kalteuenetakoa izandako batzuk, eta egun gaixotasun larriak ez badute ere, nahiko osasun makala dute. Briansk-eko biztanleen helburua izaten da, urtean denboraldi batez behintzat bertako umeak kanpora bidaltzea, «aire hobea arnastu dezaten». Hala ere, ez dute beti lortzen eta hau da talde honek kanpora egiten duen lehengo bidaia.

Josu Ortuondo alkatea izan zen, Udal Batzaren izenean, ongi-torria eman ziena, eta aurrerantzean, talde gehiago etorriko zirela ere aipatu zuen. «Oso atsegina da guretzat zuek hemen izatea, eta bidaia honen bidez, Bilboko Udalaren helburua da, duela bost urte jasan zenuten zorigaitza, ahal den neurrian ekiditea», esan zien Ortuondok, Briansk-eko haurrei.

Euskal Herriari buruzko hainbat xehetasun ere argitu zizkien Bilboko alkateak Briansk-etik etorritako haurrei, eta datozen egunetan berak aipatutako hainbat herri ezagutuko dituztela gogoratu. Ortuondoren ondotik, Andres Landabaskok hartu zuen hitza, Briansk eskualdeko 'Aurrerapena eta Kultura' Fundazioko lehendakariak. Honek, eskerrak eman zizkien bai Bilboko Udalari eta bai Eusko Jaurlaritzari laurogei haur hauek Euskal Herrira etortzeko aukera izan dutelako.

Ezbeharrak

Bi pertsona hilik aurkitu ziren Lizarra eta Usurbilen

DONOSTIA

Vicente del Pozo Caro gaztea hilik aurkitu zuten atzo Lizarran, buruan eskopeta tiro bat zuela. Puyko Ama Birjinaren basilikaren inguruetan aurkitu zuten gorpua elizatik irteten ziren emakume batzuk. Vicente del Pozok hogeitabat urte zituen eta Lizarran jaioa zen.

Lizarrako Udaltzaingoa Eferi adierazitakoaren arabera, hildakoak ordu gutxi batzuk lehenago auto istripua izan zuen bere lagunekin Urantziako jaietatik zetorrela. Istripu horretan ez zen zauriturik izan eta kotxe barruan zihoazen guztiak Lizarrako beren etxetara itzuli ziren.

Bere gurasoen etxera iritsi eta berriaz atera zen aitaren ehiza eskopeta eskuan zuela. Eskopeta desagertu zela ohartzekoan, lagunak eta Udaltzaingoa herrian zehar Vicente bilatzen hasi ziren inolako emaitzarik gabe. Goizeko zazpirak aldean, Puyko basilikako mezara zihoazen emakume talde batek 'Alto Redondo' izenez ezagutzen den leku batean gazte bat etzanik ikusi zuten, baina ez

zioten garrantzi berezirik eman. Elizatik ateratzean gehiago hurbildu eta hilik zegoela konturatu ziren emakumeak, Goardia Zibila ohartaraziz.

Lizarrako Udaltzaingoko Inspektore Buruak ziurtatu zuenez, «kolpea izan liteke gaztearen jokoera aldatu zuena, edota istripuaren ondorioz urduri jarri zen».

BERE BURUAZ BESTE EGIN

Ustez bere buruaz beste egin zuen pertsona bat hilik aurkitu zuten atzo iluntzean Usurbilgo baserri batean. Gorpuren ondoan ehiza eskopeta aurkitu zuen Ertzaintzak, lehen hipotesiaren arabera tiro egiteko erabilia. Hildakoa baserri bertan bizi zen 46 urteko Jose I.B. da. Ertzaintzak jakinerazi zuenez, goizeko bederatzia aldean ezezagun batek Andoango komisaldegira dei egin zuen Usurbilgo San Esteban auzoan gorpu bat zegoela ohartaraziz. Ertzaintza hara bertaratu zirenean, Jose I.B. hilik aurkitu zuten. Gorpuak su arma batek eragindako zuloa zuen kokotsean eta bere alboan hamabi kalibreko eskopeta.

Udako Ikastaroak

Aste nagusiaren ondoren bihar ekingo zaie berriro ikastaroari


Datozen hiru astetan hamasei ikastaro eta bi mila ikasle izango dira

Bihar UPV-EHUko udako ikastaroen bigarren zatia hasiko da. Datozen hiru astetan hamasei ikastaro izango dira Donostiako Miramar Jauregian. Bertan bi mila ikasle eta berrehun irakasle bilduko dira.

DONOSTIA

'Arkitektura eta joko eta kirol-tarako espazioak' izeneko gaia jorratuko duen ikastaroarekin ekingo zaio berriro ere udako unibertsitateari, Aste Nagusiko astebeteko jai egunak igaro ondoren. Ikastaro hau Iñaki Galarraga Aldanondo irakasleak emango du. Goizeko bederatzietan, Galarragak gai honen inguruko xehetasun orokorrak adieraziko ditu. Ondoren, hamarrak eta laurden inguruan, Francisco de Leon Molina arkitektoak Azpeitia herriko hitigintz egoeraz hitzegingo du.

Ondoren, Andoingo plaza eta piloteta jokoak gaia jorratuko du Montse-



Ikasle eta irakasleak berriro ikasgeletara itzuliko dira bihar.

rrat Ruiz Faber irakasleak. Amaitzeko, berriro ere Galarragak helduko dio gaiaren hariari eta tipologia desberdinez mintzatuko da. Hiru aste geratzen dira aurtengo udako ikastaro hauei amaiera emateko. Besteak beste 'HIES: Gizarteartzat erroka' eta 'Bakearen esanahia: gogoetak' gaiak azpimarratu dituzte ikastaroen

antolatzaileek. Kirola, nutrizioa, teknologia berriak, ingurugiroa, euskal dialektologia eta osasunaren inguruko gaiak landuko dira. Azken ikastaroa Enrique Fuentes Quintanak emango du euskal finantz sistemaren gainean. Bertan izango da Eusko Jaurlaritzako Hazienda eta Finantz kontseilaria Jose Luis Larrea.

San Migelerraino eramango dute gaur tripakiz beteriko Lakuntzako pertza

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Gaur ekingo diete lakuntzarrek, urtero bezala, Aralarko San Migelera eramaten duen malda gogorari, asto, pertza eta tripakiez ederki horniturik. Batzuk oinez, besteak kotxez, meza entzun ondoren hamaiketako aparta egingo dute santutegiaren parean, dantza eta musikaz alaiturik. Gaur bait da Lakuntzako Pertza.

Antzinatik datorren ohiturari jarraituz, Sakanako herri osoa San Migelen elkartuko da aurtan ere, santuari otoitz egitera batzuk, odolkia eta tripakiak dastatzera beste batzuk. Izan ere, hasieran —orain dela mende franko— Euskal Herrian zehar dauden beste erromeria askoren arteko beste bat baino ez zen lakuntzarrek urtero San Migelera eramaten dituenak. Kondaira zahar batek, ordea, aldarazi zuen lehengo zentzua, eta urteen poderioz, orain duen esanahia hartu zuen.

Aspaldi, hamaiketako egiteko eramaten zen pertza, nonbait, erori eta malda beheran joan zen, bere tripaki eta guzti. Hortik dator sinismen eta kondaira. Batzuren esanetan, bidea malkorra eta irristagarria zenez, Uharte Arakileraino erori zen pertza, txirinbuluka, eta baita bertako erritariari buruan jo ere, bidean bait zebilen, despistatu samartuta. Ondorioz, begioker gelditu omen zen gizarajoa. Beste batzuek diotenez, ordea, pertza bera zeramatenek eta astoak ere hartu zuten Uharteko bidea. Nola edo hala, gaur, goizeko seie-



Aintzinako ohitura da erromeria hau egitea, argazkian orain 25 urte.

tan, astoa eta pertza abiatuko dira maldan gora, lakuntzarrek lagundurik, eta beraiekin batera, 180ren bat kilo tripaki, ardikiez egindakoa. Pertza bota zenekoan ekingo diete lehendabiziko tripakiak jateari, hor izan bait zen erorketa ospetsua. Oinez joaten direnez gain, kotxezaleak ere ez dira faltako San Migelen, eta meza ondoren, dantzak izango dira. Lehendabizikoa, 'Lakuntzako Pertza' izenekoak, Jon Oñatibia oñatiarrak asmatutakoa.

Guzti honen antolatzailea Lakuntzako elkarte bat da, 'Lakuntzako

Pertza' —nola ez!— deritzona. Aurtan beteko du, hain zuzen ere, 25 urte, eta Lakuntzako argazki zaharrei buruzko erakusketa izan da egunotan elkartean. Bertan gordetzen da urtean zehar gero tripakiz beteko duten pertza. Hurbilduko direnek, lakuntzarrek ez izanda ere, ardo ona eta tripaki hobea dastatzeko parada izango dute.

Dantzen ondoren, bazkaria egingo da Guardetxan inguruan, eta arratsaldeko 16,30etan Kaxiano soinujolea arituko da. Lakuntzan bertan, bitartean, berbena.